

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bi herri, irrintzi bat.
Batzuen artean.
Musikherria.
Iraupena: 59'30".
5 euro.

Estiloetatik harago, musikak bat eginda

BADAKIGU Musikherria ez dela diskoetxe bat, elkarlanean herri mugimendutik musika taldeak eta beste hainbat helburu bul-tzatzen dituen plataforma baizik. Asko dira honezkero kaleratu dituzten lanak, eta horien artean badira bilduma bereziak ere; honakoa kasu. Euskal Herriko eta Saharako musikariak eta kantak aurki ditzakegu hemen, Sahararen alde egiteko. Desertutik, El Mufid, Hababa eta Shwitaren doinuak datozkigu, hango folka gaurkotuz. Eta

gure artetik, eskaintza oso zabala: Norte Apache, 121 Krew eta Mix6t-ren hip-hop; kutsu latino nahasten duten Kasu!; hardcore melodiko pisutsua lantzen duen Zein da Zein?; raggamuffina eta Jamaika gogora ekarri dizkigun Garagardo Gura; SKT Sekuentzia klasifikagaitzak, rock gogorra goxatzen duen Siroka; Odolaz Blai talde thrashcorea eta beste.

<http://musikherria.org/>

Gorka - Musikherriako kidea

«Saharan musika jasotzeko zailtasunak dituzte; horrek eragina du musikaren garapenean»

Nolatan bururatu zitzaizuen halako bilduma egitea? Nolako izan da prozesua?

Felipe Kortajarena Musikherriako kideak Saharara hainbat alditan jo du eta hango musikari batzuk ezagutu zituen. Euskal Herriko eta Saharako kanten bilduma egitea bururatu eta Musikherriako taldeei parte hartzeko gonbidapena egin zigun; eta horietako batzuk lanean jarri ginen. Azkenean bilduma anitza eta dotorea gel-ditu dela uste dugu. Saharako hainbat musikarik esku hartu dute; han dituzten zailtasunak kontuan hartuta, erraza izan da?

Zeresan handia izan du Gasteizen bizi izandako Hababa musikariak. Hainbat kanta pasa dizkigu, baita berak ezagutzen dituen beste musikari batzuek ere. Han badira musika taldeak eta gero eta estilo anitzagoak lantzeaz gain, musika instrumentu gehiago erabiltzen dituzte, baina nabaria da kanpoko musika jasotzeko eta entzuteko



zailtasun handiak dituztela. Eta horrek eragina du musikaren garapenean.

Bilduma hau zuen aspaldiko helburu baten barruan kokatzen da...

Bai, beste disko askoz gain, bost bat bilduma kaleratu ditugu: AHTren kontra, ikasle abertzaleen alde... Musikherria herri mugimendua da eta borroka konkretu batzuei laguntzen ahalegintzen gara. Hala, disko hau Sahararen aldeko elkarleen esku jarri dugu, jasotako diru guztia herrialde horri laguntzeko.

Diskoan ageri diren kantak espresuki bildumarako eginak daude?

Denetik dago. Bilduma osatzen duten 20 piezetatik hamar bat berriak dira, eta gainontze-koak aurretik idatziak eta grabatuak. Gehienak Sahararen ingurukoak badira ere, bada gosearen, Afrikaren edo bestelako gai paraleloen gaineko abestirik ere.

Kasu batzuetan musikari euskaldunak eta sahararrak kanta berean batzea lortu duzue...

Bai, 121 Krew taldera Euskal Herrian bizi den Zhoer arabiarra batu da; eta Mix6t taldeko bi kide ere arabiar jatorrikoak dira. ■